

METCAko 2009ko Promozioko Diplomak banatu dira.

2010/03/23

Masterraren bosgarren promozioak 5 herrialdeetako 17 ingeniari graduatu ditu, automobil-txapelketako espezialistak dira orain, baina, edozein industria erronkari aurre egin diezaioketenak.

EPSILON EUSKADIK Arabako parke teknologikoan duen egoitza berrian banatu dira Automobil-txapelketan espezializazioa Masterreko 2009ko promozioako diplomak.

Ekitaldia Joan Villadelpratek -EPSILONeko lehendakaria- eta losu Zabalak -Mondragon Unibertsitateko errektorea- presiditu dute, eta bertan izan da, halaber, Espainiako Automobilismo Federazioko lehendakaria den Carlos Gracia; horrek METCAren hezkuntza sistemaren ezaugarriak nabarmendu ditu, teoria eta praktika modu orekatuan uztartzan dituen aldetik, eta eskolak emateko kokagunea den Berrikuntza Teknologikoko Zentroaren instalazio bikainak ere goratu ditu.

EPSILONeko hezkuntza arduradun Ivan Platasek gidatu du ekitaldiaren ildo eta, agintarien hitzaldien ondoren, diploma banaketari ekin zaio. 2009ko promozioako ikasleek jaso dituzte diplomak eta, lan arrazoiengatik edo motibo pertsonalengatik bertaratzerik izan ez dutenen orde, haiek izendatutako ordezkariak jaso dituzte.

2010eko promozioa seigarren promozioa da, baina instalazio berriez baliatzen den lehenengoa, eta ikasle horiek ere izan dira ekitaldian, eta amaierako sorpresarekin disfrutatu dute aurrekoekin batera: bideo bat eman dute, zorionak emateko Jaime Alguersuarien hitz abegikorrekin. 1 Formulako Toro Rosso taldeko pilotuak ongi ezagutzen du etxea, haiek bezala urte bat eman zuelako EPSILON EUSKADI taldean piloturako trebatzen, eta orain arte bezala gogotik lanean jarraitzeko animatu ditu ikasleak, horixe delako nahi den lekura iristeko modua.

METCA master bat da, EPSILONek Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan ematen duena 2005az geroztik, eta urtetik urtera haziz joan da, bai ikasleei dagokienez, bai nazioartean entzuteari dagokionez, erreferentzia globala bihurtzeraino. 11 hilabetetan 1.700 eskola ordu baino gehiago ematen dira, eta masterraren helburua da ikasleei diziplina askoko heziketa eskaintzea, aerodinamika, ibilgailu dinamika, transmisio, kalkulu eta simulazio, CAD, pistako ingeniari eta talde zuzendaritzako arloetan jakintza areagotzeko.

